## EIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Eibarko Udaleko Kontu, Ogasun eta Ondare Batzordeak,1998ko Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorraren aldeko txostena eman du 1999ko apirilaren 27an izandako bileran.

Otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauak, Tokiko Erakundeen Aurrekontuenak, 62. eta 63. artikuluetan ezarritakoa betez, aipatutako kontu jendearen agerian jarriko da, baita haren egiaztagiriak eta Kontu Batzordearen txostena ere, hamabost egunez. Epe Horretan erreklamazioak, erreparoak edo oharrak aurkez ditzakete interesatuek idatziz. Kontu Batzordeak horiek aztertu eta beharrezko iritzitako egiaztaketa guztiak egin ondoren beste txosten bat egingo luke behar izanez gero.

Eibar, 1999ko apirilaren 28a.—Alkatea.

(1757) (4564)

## AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Anuncio*

La Comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio del Ayuntamiento de Eibar en reunión celebrada el día 27 de abril de 1999, informó favorablemente la Cuenta General del Presupuesto Municipal correspondiente al ejercicio 1998.

En cumplimiento de lo establecido en los artículos 62 y 63 de la Norma Foral 4/1991 de 26 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales dicha Cuenta se expone al Público, junto con sus justificantes y el informe de la Comisión Especial, durante quince días. En este plazo, los interesados podrán presentar reclamaciones, reparos u observaciones por escrito. Examinados éstos, si los hubiera, por la Comisión de Cuentas y practicadas por la misma cuantas comprobaciones estime necesarias, emitirá nuevo informe si procediese.

Eibar, a 28 de abril de 1999.—El Alcalde.

(1757) (4564)

---

*Udalbatzak 1999ko martxoaren 26an egindako bilkuran Emakumearen mahaia arautzeko araudia onartu zuenez gero, testu osoa jendeaurrean uzten da:*

### EMAKUMEEN MAHAIA

### ARAUDIA

*1. artikulua. Izaera.*

1) «Emakumeen Mahaia», udal administrazioak aholkuak jasotzeko duen baliabidea da, ez loturapekoa, herri mailan Emakumeari buruzko politika sektorialak gauzatzeko sortua.

2) «Emakumeen Mahaia»k ondoko araudi honetan esandakoari egin behar dio men; baita legozkiokeen beste arau eta xedapen batzuetan esandakoari ere.

*2. artikulua. Helburua.*

«Emakumearen mahaiak» duen azken helburua, gizon eta emakumeen berdintasuna bideratuko duten baldintzak zaintzea da; emakumeak herriko bizimoduan parte hartzea; politikan, kulturan, ekonomian eta gizarteren arlo orotan. Xede horiek izanik, alderdikeriak bazterrean utziko dira; bazterrean utziko dira kutsu politikoko eztabaida edo jarrerak, zein direlarik ere.

*3. artikulua. Egitekoak.*

1. Finkatu dituen helburuak betetzeko, hona hemen «Emakumearen Mahaia»ri dagozkion egitekoak:

a) Udalaren politika zuzentzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eskuratzeko xedez.

b) Aukera berdintasuna eskuratzeko udal iharduera plangintzak bultzatzea eta plangintza horren jarraipena egitea.

c) Toki Administrazioari aholkuak eman iharduera lerro nagusiak zehazterakoan eta aurekontuan lehentasuna eman behar zaien gauzak zehazterakoan.

d) «Emakumearen Mahaia»n parte hartzen ez duten pertsona edo taldeek egindako iradokizunak edo ekimenak jasotzea.

*Aprobada por el Pleno Municipal de 26 de marzo de 1999 se hace público el texto integro de la Normativa reguladora de la* Mesa de la Mujer.

### MESA DE LA MUJER

### NORMATIVA

*Artículo 1.º Naturaleza.*

1) La Mesa de la Mujer es un instrumento asesor y consultivo, no vinculante, de la Administración Municipal para el ejercicio de las políticas sectoriales de Mujer en el ámbito local.

2) La Mesa de la Mujer se regirá por la presente Normativa y demás disposiciones que le sean de aplicación.

*Artículo 2.º Finalidad.*

El fin último de la Mesa de la Mujer es velar por las condiciones que posibiliten la igualdad de ambos sexos y la participación de la mujer en la vida ciudadana, política, cultural, económica y social. Por tanto, se obviarán los debates o posicionamientos de cualquier signo político de tipo partidista.

*Artículo 3.º Funciones.*

1. Para el cumplimiento de sus fines corresponde a la Mesa de la Mujer desarrollar las siguientes funciones:

a) Orientar la política municipal con el objetivo de conseguir la igualdad entre hombres y mujeres.

b) Impulsar la elaboración de planes municipales de actuación hacia la igualdad de oportunidades, realizar seguimiento del mismo.

c) Asesorar a la Administración local en la definición de las líneas de actuación generales, así como en la determinación de las prioridades presupuestarias.

d) Recoger las sugerencias e iniciativas propuestas por personas o colectivos no participantes en la Mesa de la Mujer.

e) «Emakumearen Mahaia»ri iristen zaizkion diskriminazio jarreren salaketak jasotzea eta salaketok bideratzeko ahalmena duten organoen esku uztea, salatu diren jokabide horiek berdintasunaren oinarria hautsi edo emakumearendako iraingarriak badira eta behar bezala oinarrituta badaude.

f) Partizipazioa bultzatzea, emakumearen aldeko jarduerak daramatzaten beste elkarte eta gainerako erakundeekin elkarlana eta elkarlaguntza bultzatzea.

g) Mahaikide berriak hartzea edo kideren bat kanpora botatzeko erabakia hartzea.

2. Udalak, ahal duen neurrian eta behar den heinean, «Mahaia»ren zereginak betetzeko eta horren funtzionamendu egokia bermatzeko hartu behar dituen baliabideak eskainiko ditu.

*4. artikulua. Emakumearen Mahaiaren osaketa.*

1. «Mahaia», hitza eta botua izango duten ondoko kide hauek osatuko dute:

a) Emakumearen arloko ardura duen zinegotzia, alkatetzak izendatua.

b) «Andrazkoen Fabore Ekintza Positiboen Plangintza»ren eta Emakumearen arloko teknikari arduraduna, aldi berean, Mahaiaren idazkari izango dena.

c) Udal iharduera-esparrua duen emakume elkarte edo emakume-talde bakoitzeko ordezkari bat. Ondoko baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Herriaren Onerako Elkarteen Zerrendan agertzea.

2. Emakumearen eskubide eta aukera berdintasunaren aldeko jarduerak garatzea.

3. Diru irabazi asmorik ez izatea.

4. Funtzionamendu demokratikoa izatea indarrean dagoen lege-esparruan barruan.

d) Ondoren aipatuko diren baldintzak bete eta izaera aldetik gizartearen alde lanean diharduten beste elkarte batzuetako emakume-sailetakoak direnean:

1. Elkarte barruan egon arren, emakumeen jardueretan funtzionamendurako autonomia duen erakunde bereiztu batekoak izatea.

2. c) saileko 1, 2, e eta 4. baldintzak betetzea.

e) Sindikatuetako emakumeen sailak.

f) Edozein emakume, diru irabazi asmo barik berdintasunaren alde jardun eta gaiarekiko arreta eta interesa erakutsi izan duena.

2. d) eta e) kasuetan, erakundeko ordezkari batek har dezake parte, erakundeak hala eskatuz gero.

3. «Emakumearen Mahaia»k bere bileretan aholkulariak edo begiztatzaileak onar ditzake, hitzarekin baina botu barik, aurrez Mahaiburuari eskaera eginda.

*5. artikulua. «Emakumearen Mahaia»n sartzeaz.*

1. Aurreko artikuluak aipatu dituen erakundeek eta taldeek «Emakumearen Mahai»an parte hartu ahal izango dute aurrez Mahaiburuari idatziz eskaera luzatuta. Ondoko datu hauek eman behar dituzte sarrera eskatzerakoan:

a) Erakundearen, elkartearen edo taldearen izena.

b) Hala balegoke, elkartearen edo erakundearen estatutuak, edo/eta batzarraren erabakia bertako emakume-talde antolatuek edo sailek funtzionamendurako autonomia dutela aitortuz.

e) Recoger y canalizar a los órganos competentes cuantas denuncias de conductas discriminatorias, debidamente fundamentadas, lleguen a conocimiento de la Mesa de la Mujer, siempre que estas violen el principio de igualdad o denigren a las mujeres.

f) Impulsar la participación, así como la colaboración y cooperación entre asociaciones y demás entidades que lleven a cabo actividades de promoción de la mujer.

g) Acordar la admisión/cese de las miembros de la Mesa.

2. El Ayuntamiento facilitará en la medida que se estime posible y necesario, los medios oportunos para el cumplimiento de sus funciones y su adecuado funcionamiento.

*Artículo 4.º Composición de la Mesa de la Mujer.*

1. Estará compuesta con voz y voto por los siguientes miembros:

a) Concejal/a responsable de Mujer que ejercerá la presidencia, previo nombramiento por Alcaldía.

b) La técnica responsable del Plan de Acción Positiva y de Mujer, que ejercerá la Secretaría de la Mesa.

c) Una representante de cada asociación o federación de mujeres cuyo ámbito de actuación sea municipal, siempre que cumplan las siguientes condiciones:

1. Estar inscritas en el Registro de Asociaciones de Interés Municipal.

2. Desarrollar actividades en defensa de la igualdad de derechos y oportunidades de las mujeres.

3. No perseguir fines lucrativos.

4. Contar con un régimen de funcionamiento democrático, en el marco del ordenamiento legal vigente.

d) Las secciones de mujeres de otras asociaciones de carácter social que cumplan las siguientes condiciones:

1. Que constituyan una entidad diferenciada de la Asociación Correspondiente, con autonomía funcional, respecto a las actividades de mujeres.

2. Que cumplan las condiciones 1, 2, 3 y 4 del apartado c).

e) Las secciones de mujer de los sindicatos.

f). Mujeres que de forma individual y sin fines lucrativos, desarrollen actividades en favor de la igualdad y manifiesten un interés estable por el tema.

2. En los casos d) y e) podrá participar una representante por cada entidad que lo solicite formalmente.

3. La Mesa de la Mujer podrá admitir en las sesiones personas observadoras o asesoras, con voz pero sin voto, previa solicitud a la Presidencia.

*Artículo 5.º Incorporación a la Mesa de la Mujer.*

1. Las organizaciones y entidades a las que se refiere el artículo anterior, podrán formar parte de la Mesa de la Mujer previa solicitud por escrito dirigida a la Presidenta de la misma, aportando los datos siguientes a efectos identificativos:

a) Nombre de la entidad, asociación u organización.

b) En su caso, estatutos de la asociación o entidad y/o acuerdo de la junta reconociendo autonomía funcional a secciones o colectivos organizados de mujer.

c) Hala balegoke, egoitzaren helbidea eta emakume bazkide-kopurua.

d) Erakundeak edo elkarteak «Emakumearen Mahaia»n duen ordezkariaren izen-abizenak. Baita horren ordezkoaren izena ere.

e) Deialdietarako, helbidea eta telefonoa.

2. Mahaian parte hartu nahi duen beste edozeinek, ondoko datu hauek ekarri behar ditu:

a) Izen-abizenak.

b) Parte hartzeko dituen arrazoien azalpena.

c) Gaiarekiko duen arreta betikoa dela eta diru-irabazi asmorik ez duela liokeen zinpeko aitorpena.

d) Deialdietarako, helbidea eta telefonoa.

3. Datuetan aldaketaren bat balego «Emakumearen Mahai»ko idazkariari jakinarazi behar zaio, aldaketa izan eta hurrengo hilabatearen barruan.

*5. artikulua. «Emakumearen Mahaia»n parte hartzeari uztea.*

1. Ondoren aipatuko diren arrazoiak direla medio, «Mahai»kide izatea galdu egingo da:

a) Norbere borondatez uztea.

b) Erakundea edo elkartea desegitea.

c) Hiru aldiz ez agertzeagatik idazkariari ohartarazi gabe.

d) Mahaiak dituen helburu edo oinarrien kontrako jokabidea edo jarrera erakusteagatik partehartzaile gehienek hala deritzotenean.

e) Araudi honetan esandakoa behin eta berriz hausteagatik edo/eta «Emakumearen Mahaia»ren funtzionamendua modu larrian hausteagatik.

2. Mahaiak berak hartuko du mahaitik kanporatzeko erabakia elkarteari, erakundeari edo dena delakoari esateko duena entzun ondoren.

3. Mahaikide izateari uzteak ez du esan nahi berriro Mahaira sartu ezin denik, mahaitik botatzeko arrazoibideak desagertu badira.

*7. artikulua.*

Emakumearen Mahaiak egoteak ez du ekarriko inolako ordainik.

*8. artikulua. Mahaiburua.*

Mahaiburua izango da «Emakumearen Mahaia»k izango duen ordezkaririk nagusiena.

Hona hemen horren betekizunak:

a) Bilerak zuzendu eta amaiera eman; eztabaidak zuzendu.

b) Mahakideen proposamenez, kideen izendapenak eta utzarazteak.

c) Gizartekintza Batzordeari, Mahaiak egindako proposamenak helarazi.

d) Emakumearen Mahaiari, egin dituen proposamenen garapenari buruzko argibideak eman.

c) En su caso, domicilio social y número de socias.

d) Nombre y dos apellidos de la persona representante de la entidad u asociación en la Mesa de la Mujer, y nombre de persona sustituta.

e) Dirección y teléfono de contacto para las convocatorias.

2. Las personas que deseen participar a titulo individual deberán aportar los siguientes datos:

a) Nombre y dos apellidos.

b) Explicación de los motivos para participar.

c) Declaración jurada en la que conste su interés estable por el tema y no perseguir fines lucrativos.

d) Dirección y teléfono de contacto para las convocatorias.

3. Cualquier modificación en los datos deberá notificarse a la Secretaría de la Mesa de la Mujer dentro del mes siguiente al que se produzca.

*Artículo 6.º Cese en la participación en la Mesa de la Mujer.*

1. Se perderá la calidad de miembro por cualquiera de las siguientes causas:

a) Voluntad propia.

b) Disolución de la asociación o entidad.

c) Por falta reiterada de asistencia, tres veces consecutivas sin avisar a la Secretaría.

d) Por tener conductas o actividades contrarias a los principios y objetivos de la Mesa, apreciadas por la mayoría de las participantes en la misma.

e) Por el incumplimiento reiterado de la presente Normativa y/o perturbación grave del funcionamiento de la Mesa de la Mujer.

2. Dicha pérdida será acordada por la Mesa tras haber dado audiencia a la Asociación, Entidad o persona implicada.

3. El cese como miembro de la Mesa no impide la posible reincorporación a la misma, una vez desaparecidas las causas que lo motivaron.

*Artículo 7.º*

La representación en la Mesa de la Mujer no conllevará retribución de ninguna especie.

*Artículo 8.º La Presidencia.*

La presidenta ostenta la máxima representación de la Mesa de la Mujer.

Sus atribuciones serán:

a) Presidir y levantar las sesiones, dirigir las deliberaciones.

b) Realizar a propuesta de las componentes de la Mesa, los nombramientos y Ceses de los miembros.

c) Elevar a la Comisión Asesora de Servicios Sociales las propuestas realizadas por la Mesa de la Mujer.

d) Informar a la Mesa de la Mujer sobre el desarrollo de sus propuestas.

*9. artikulua. Idazkaria.*

Saileko udal teknikaria izango da. Idazkariaren betebeharrak hauexek dira:

a) Bilera-deiak egitea eta bidaltzea.

b) Kontseiluko bileren aktak jasotzea eta erabakien ziurtagiriak luzatzea.

c) Mahaikide eta ordezkarien Erregistroa egunean eraman. Baita altak eta bajak ere.

d) Esandakoez gain, saileko teknikaritzak eskatzen dizkion gainerako betekizunak.

*10. artikulua. Elkarte eta Erakundeen ordezkariak.*

Mahaian parte hartzeak hauxe dakarkie:

a) Araudia onartzea.

b) Elkarteari edo Erakundeari mahaiko edukien berri ematea.

c) Bileretan erabakitakoak betearaztea.

*11. artikulua. Funtzionamendua.*

1. Duen izaera kontuan edukita, «Emakumearen Mahaia»k ahalmena du Gizartekintza Batzordeari proposamenak egiteko. Batzordeak, ahalmena duten erakundeei emango die proposamenen berri eta erantzuna ezezkoa bada Emakumearen Mahaiari idatziz erantzungo dio ezezkoaren arrazoibideak emanez.

2. Proposamenak egiteko elkar akordioetara iritsi behar da, udal administrazioarendako loturapekoak ez diren akordioak. Horretarako mekanismorik egokiena kontsentsoa da. Hala ere, proposamenak bozketatu egingo dira.

3. «Emakumearen Mahaia» eratzeko behar den «quorum»a, kideen erdia gehi kide bat gehiago izango da

4. Kontsentsurik ez balego, Gizartekintza Batzordeari bidaliko zaizkion proposamenak bertaratutako kideen gehiengo soilez egingo dira.

5. Botua kide bakoitzarena dela eta elkarte eta erakundeetako ordezkariek izango dute ordezkapenezko botua, beti ere erakunde edo elkarteko beste pertsona bati eman badiote. Beti ere elkarte edo erakundeko botu bat. Ez da onartuko posta bidez iritsitako boturik.

*12. artikulua. Deialdia.*

1. Bilera-deiak zazpi egun lehenagoz egin behar dira, idatziz. Deiarekin batera, eguneko aztergaia eta aurreko bileraren akta bidaliko dira.

2. Ohiko bilkurarako, hilean behin egun bat jarriko dira, beti egun berean.

*13. artikulua. Publizitatea.*

1. Udalak emakumearen politika sektorialak garatzeko egingo dituen iharduerak udalaren titularitatepekoak direnez, udalaren izena da azalduko dena, eta hala balegoke, iharduera horien ardura duen sailarena.

2. Iharduerak edo ekitaldiak Andrazkoen fabore (Ekintza Positiboen Plangintza) planekoak direnean, logotipo hori azalduko da Andrazkoen fabore, (ekintza positiboen plangintza) lemapean.

*Artículo 9.º La Secretaria.*

Recaerá en la técnica municipal del área. En ejercicio de la Secretaría deberá:

a) Confeccionar y enviar las convocatorias de las reuniones.

b) Levantar acta de las sesiones del Consejo y emitir certificaciones de los acuerdos.

c) Llevar de forma actualizada el Registro de los miembros y representantes de la Mesa, así como de las altas y bajas.

d) Además de sus funciones como técnica del área.

*Artículo 10.º Las representantes de Asociaciones y Entidades.*

Su participación en la Mesa implica:

a) Aceptación de la normativa.

b) Informar a su Asociación o Entidad sobre los contenidos de la Mesa.

c) Cumplir los compromisos acordados en las reuniones.

*Artículo 11.º Funcionamiento.*

1. Por su naturaleza la Mesa de la Mujer tiene capacidad de realizar propuestas a la Comisión Asesora de Servicios Sociales, quien cursará la misma a los órganos competentes, y en caso de desestimación, dará una repuesta por escrito a la Mesa de la Mujer sobre los motivos de la misma.

2. La realización de las propuestas se realizará mediante la toma de acuerdos, no vinculantes para la Administración Municipal, para ello el mecanismo idóneo es el consenso. No obstante, las propuestas se sometarán a votación.

3. El Quórum necesario para la válida constitución de la Mesa de la Mujer será de la mitad más una de sus miembros.

4. Si no se alcanzara el consenso, los acuerdos de propuesta a la Comisión Asesora de Servicios Sociales se adoptarán por mayoría simple de las asistentes.

5. El voto es personal y solo podrá ser delegado por parte de los representantes de las asociaciones y entidades a otra persona de dicha entidad, y solo se admitirá un voto por entidad. No se admitirá voto por correo.

*Artículo 12.º Convocatoria.*

1. Las convocatorias de reunión se realizaran con una antelación de 7 días por escrito, donde se hará constar el orden del día, y se adjuntará el acta de la reunión anterior.

2. Se establecerá un día fijo al mes como fecha de reunión ordinaria.

*Artículo 13.º Publicidad.*

1. Las actividades realizadas por el Ayuntamiento para el desarrollo de las políticas sectoriales de la mujer son de titularidad municipal, por lo que únicamente deberá constar su nombre, y en su caso el del departamento responsable de las mismas.

2. Cuando las actividades se refieran a acciones u objetivos contemplados en el Plan De Acción Positiva Municipal, se hará constar además el logotipo del mismo, con el lema Andrazkoen fabore, Plan de acción positiva.

3. Iharduera edo ekitaldiren bat «Emakumearen Mahaia»k egindako proposamen baten sustraitzen denean, mahaiaren partizipazioa agerian utziko da baina erakundeen izena aipatzeke.

4.Ekitaldiak edo iharduerak antolatzerakoan elkarte edo erakundeek parte hartzen badute, horien izena bistaratuko da.

*14. artikulua. Ordezkaritza publikoa.*

1. Emakumearen Mahaiko ordezkaritza publikoa, mahaiburuari dagokio.

2. Emakumearen gaiarekin edo gai horren inguruan udalak antolatutako egitarau edo ekitaldiren bat hedabideen aurrean aurkezterakoan, «Emakumearen Mahaia»k parte hartzen duenean, mahaiburuaz aparte beste mahaikide batek har lezake parte, denen artean aukeratutakoa izan behar duelarik.Horretarako, Emakumearen Mahaiaren bileran emango da berri.

3. Besta udal batzorde batzuen lantaldeetan emakumeen partehartzea eskatzen denean, Emakumearen Mahaiak izendatuko du horretarako ordezkaria.

*15. artikulua. Aldi baterako xedapena.*

Gaur egun Emakumearen Mahaia osatzen duten elkarte eta pertsonek (1. eranskina) araudi honetan ezarritakoa bete egin behar dute, gehien jota, hemendik hiru hilabetera.

*16. artikulua. Azken xedapena.*

Udalbatzari dagokio agiri honetan emandako xedapenak onestea.

Eibar, 1999ko apirilaren 22a.—Iñaki Arriola López, Alkatea.

(1734) (4631)

---

*Esleipen iragarkia*

Lehiaketa: Umeen jolastokietarako segurtasunezko zoru horniketa eta instalazioa.

*1. Esleitzailea.*

a) Erakundea: Eibarko Udala.

b) Espedientea bideratu duen saila: Erosketa eta Kontratazioetarakoa.

*2. Kontratuaren xedea.*

a) Kontrato-mota: Hornidurarakoa.

b) Deskripzioa: Umeen jolastokietarako, segurtasunezko zoruak ekarri eta instalatzea.

c) Iragarkia kaleratu zeneko buletina eta eguna: 1999ko martxoaren 15eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA.

*3. Izapideak, ihardunbidea eta esleipena egiteko modua.*

a) Tramitazioa: Arrunta.

b) Ihardunbidea: Irekia.

c) Modua: Lehiaketa.

*4. Esleipenaren aurrekontua.*

Zenbateko osoa: 7.496.616 pzta.

3. Cuando las actividades procedan de una propuesta emitida por la Mesa de la Mujer, se hará constar la participación de la misma, sin especificar el nombre de las entidades representadas.

4. Cuando en la organización de las actividades participen las asociaciones o entidades se hará constar específicamente el nombre de la/s misma/s.

*Artículo 14.º Representación Pública.*

1. La representación pública de la Mesa de la Mujer recaerá en la persona que ejerce la presidencia.

2. En la presentación ante los medios de comunicación u otros eventos de programas relativos a tema de Mujer, organizados por el Ayuntamiento en los que participe la Mesa de la Mujer, podrán participar, además de la Presidenta, otra componente de la Mesa, elegida democráticamente por las participantes. Para ello, es preciso que haya sido explicitado en la reunión de la Mesa de la Mujer.

3. Cuando se solicite la participación de las mujeres en grupos de trabajo de otras comisiones municipales o de otra índole, se designará la representante por acuerdo de la Mesa de la Mujer.

*Artículo 15.º Disposición Transitoria.*

Las actuales asociaciones y personas integrantes de la Mesa de la Mujer (Anexo 1) deberán adecuarse a los principios establecidos en esta normativa en el plazo máximo de tres meses.

*Artículo 16.º Disposición Final.*

Corresponderá al Pleno Municipal la aprobación de las disposiciones contenidas en el presente documento.

Eibar, a 22 de abril de 1999.—El Alcalde, Iñaki Arriola López.

(1734) (4631)

---

*Anuncio de adjudicación*

Concurso: Suministro e instalación de suelos de seguridad para parques infantiles.

*1. Entidad adjudicadora.*

a) Organismo: Ayuntamiento de Eibar.

b) Dependencia que tramita el expediente: Unidad de Compras y Contratación.

*2. Objeto del contrato.*

a) Tipo de Contrato: De suministro.

b) Descripción del objeto: Suministro e instalación de suelos de seguridad para parques infantiles.

c) Boletín y fecha de publicación del anuncio de licitación: BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 15 de marzo de 1999.

*3. Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación.*

a) Tramitación: Ordinaria.

b) Procedimiento. Abierto.

c) Forma. Concurso.

*4. Presupuesto de licitación.*

Importe total: 7.496.616 pta.